

# MUNHOA IKASTOLA- KO 3\* ALDIZKARIA



## AURKIBIDE★:

- 1- Ihauteriak ikastolan
- 2.orr Animaliak!
- 3.orr Zientziak
4. orr Sokorriak ikastolan
5. orr kirolak
6. orr esperimentua
- 7 orr JOKOak

## Ihauteriak ikastolan

Urtarrila eta otsailean, inauteriak prestatzen ditugu ama ikastolako eta lehen mailako haurrek. Aurten, otsailaren 6an, (goizean) matahamien pasta egiten dugu eta gero erretzen ditugu. Arratsalde astapenean, zirtzilez mozorrotzen gira eta plazara goaz. Txingarren atsalaskaria eta gure matahamiak jaten ditugu. Aurten jaz bezala 18:00 inguru, gazteluan elkartzen gira Azkarate animatu, herritarrek eta basaldunekin Azkarateko itzuliaren egiteko. Itzulia egin ondoan, plazara goaz haurzien egitera etazanpantzarren erretzera. Geroago, besta egiten dugu denak elgarrekin gaztainak janez.

Ioritz eta Jokin



## Satitsuen bizia

Satitsuak ttipiak dira, baina hala ere ikusten ahal ditugu. Kumeak amaren gainean tinka egiten dute, berotzeko. Ama joaten da jatekoaren xerka eta aitak kumeak zaintzen ditu. Anartean, kumeek lo egiten dute.



Laida

## Zaldiak

Elurra urtzen delarik zaldiak jostatzen hasten dira. Zaldia belarjalea da. Behorrek laguntzen dira. Lagunak badira ere kalapitak badira. Arrak ez dauka behor kuttunik, denei egiten die gortea. Zaldi kumeak sortzen direlarik amarekin egoiten dira esnea edateko, eta haunditzen direlarik, lagunekin jostatzera joaiten dira. Orain, beste emeekin mintzatzen dira, baina, hala ere, amarekin egoiten dira. Beti ibiltzen dira. Lehen, gizakiek ehizatzen zituzten, eta jendeak gerlako ere erabiltzen zituen. Orain, zaldiketak egiteko erabiltzen dituzte.



Ihitz eta Lutxi


## Eguzkia

Eguzkia espazioan, bere ardatzaren inguruan itzultzen da 70 000 km/orduko abiaduran.

Kasu ! Izigarri beroa da, bere bihotza 15 milioi gradutan da! Iduriz, zientzalariek diote Eguzkiak bere biziaren erdia bizi izan duela jada, gutti gora behera 10 milioi urtez bizi da. Geroz eta ttipiagoa bilakatuko da eta inguruko planeta guziak irentsi-ko ditu, ondotik desagertzeko.

Bainan lasai, gertatuko delarik gizakia beharbada ez da gehiago Lurraren gainean biziko.

Zientzilariek diotenez, gasaz osatua da Eguzkia, gasa errupzio izigarri beroak igortzen ditu espazioan. Handienak milaka kilometro egiten ditu.



Maddi

## Glaziarren urtzea

Glaziarrak gero eta fiteago urtzen dira Antartikan. 25 urtez, iparpoloan 3000 miliar glaziar tona urtu dira. Guk gizaki bezala ikusten ahal dugu aldaketa klimatikoek glaziarrak fiteago urtarazten dituela. Duela bost urte, glaziarrak hiru aldiz fiteago urtzen dira. Munduko glaziarren %90 antartikan aurkitzen dira. Glaziar horiek urtzen badira, itsasoan urak goitituko dira.

Amaiur





## Sokorrien formakuntza

Jaz, sokorrien formakuntza Maite Etcheverria, Gurutze Gorriko kidearekin egin genuen.


Jaz bezala, aurten ikastolan, urtarrilaren 15ean, lehen sokorrien egitea ikasi dugu Charlotte Chouryekin : bihotzeko masaia, deiak egitea alerta emaiteko eta ahoz-ahoa egitea. Charlotte suhiltzaile profesionala da Angelu eta Garaziko kasernetan ari da eta formakuntzak egiten ditu ikastola eta enpresetan.

Sokorrien numeroak ikusi ditugu ere : suhiltzaileak deitzeko 18a deitu behar da, polizia deitzeko 17a deitu behar da eta anbulantziaren deitzeko 15a.

Lehenik, 3, 4 eta 5. urtekoak elgarrekin egin genuen kurtsoa eta ondotik lehen eta bigarren urtekoek egin zuten.

Azkenean, biziki untsa pasatu dugu, denek maitatu dugu. Milesker Charlotte !!!

Naia



### Kokot ipuinaren laburpena

Hara hara, zer da ? Borobil xuri ttipi bat ? Ez, etxe ttipi bat da. Eta beti bezala, Kokotek barnean nor den jakin nahi du.

Ados, bainan etxe ttipi huntan nor bizi den jakin nahi baduzu, lehenik, zure xapela ttipia kendu beharko duzu Kokot !

Emeki emeki, kokotek bere zangoak, mokoa, hegalak eta lumak kentzen ditu bere begiak hetsiz... arroltze bat bilakatuz !

Ondotik, « TOK TOK TOK » entzuten da eta arroltzetik xito ttipi bat ateratzen da kuxkutik ! Bukatzeko, Kokoti ttinka bat egiten dio.

Lore



### Hokeia

Hokeia kirola bat da lerratokian jostatzen dena.

Jokolariek geriza ainitz dituzte hala nola kasakoa, zangotako papokop eta espaldetako gerizak.

Geriza gehienak dituen aitezaina da minik ez ukaiteko gisan, paleta bere gainera heldu delarik.

Hokeian, bestearen pusatzea haizu da. 18 urtetik goiti begien aintzinean mitra ukaiten ahal da kaskoari loturik.

Helduak borrokatzen ahal dira. Nire kusia Eneko Hokeian ari da Hormadin eta biziki azkarra da.

Xanti



### Esku baloia

Lehen, eskubaloia 1920ean zangobaloi baten terrenoan jostatzen zen. Ekipo bakoitzean hameka jokalarik baziren. Gaur egun, haien terrenoa sei aldiz ttipiagoa da eta kasik beti barnean ari dira. Bost ordezkari badira eta zazpi jokalarik terrenoan. Eskubaloiean, malgua izan behar da azkarrenetan izan nahi baldin badugu. Koxkorrak ere aritzen ahal dira bainan malgua izan behar da laster egiteko alde guzietara eta salto egiteko, bainan berrituz lurreratzean erori gabe. Atezainak zangoak ideki behar ditu batzuetan baloinaren gelditzeko.

Entremandeanduetan beroketa egin behar da. Baloinak zangoa hunkitzen duelarik falta da salbu beste taldeak zangoetara igortzen badu bainan eskubaloian zangoa belaunetarik petik hasten da. Atezainak gorputz osoarekin baloia hunkitzea zonaren barnean delarik.

Norbaitek hiru urrats baino gehiago egiten badu baloia eskuetan duelarik, arbitroak xixtu egiten du falta baita.

Elbarrituek ere jostatzen ahal dira.

Ainhua, Uxue-Lur eta Ezti.



## TINTA IKUSEZINA EGITEKO BI METODO

Erabiliko dute espioiek tinta hau ? Seur baietz. Mezu sekretuak bidali ahalko dituzu eta ezingo ditu inork irakurri.

### LEHEN METODOA:

Behar duzuna:

- 1- zitroin bat
- 2- paper bat
- 3- 100 watt-ko argi bat, piztuta (zure oe ondoan den mai ttipia duzuna edo beste edozein).
- 4- pintzel bat (edo zure eriak)

Nola egin:

- 1- zitroinaren jusa atera
- 2- zitroin jusarekin idatzi paperean
- 3- sukatu arte utzi
- 4- paperra sukatuta argia eman


### BIGARREN METODOA:


Behar duzuna:

- 1 ura
- 2 etxean duzun bikarbonada (sukaldean erabiltzen dena).
- 3 paper bat
- 4 mahats jusa
- 5 kotoina edo mukanes bat

Nola egin:

- 1- baso bat bikarbonato eta ura nahasi
- 2- utzi sukatzen
- 3- mahats jusa kotoinan edo mukanes batean isurtu eta paperran idatzi





Eguzki Sistema

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | S | M | E | S | N | E | B | I | D | E | A | Y | T |
| M | J | P | G | A | S | T | A | R | O | I | D | A | K |
| Y | U | I | S | M | E | R | K | U | R | I | O | F | C |
| B | P | T | E | L | E | S | K | O | P | I | O | A | D |
| W | I | M | H | C | I | Z | A | R | R | A | K | S | I |
| S | T | P | E | A | E | G | U | Z | K | I | A | Y | L |
| C | E | M | E | T | E | O | R | I | T | A | K | L | A |
| A | R | T | I | Z | A | R | R | A | I | O | B | F | R |
| U | B | G | D | S | A | T | U | R | N | O | I | K | G |
| S | I | U | Y | M | A | R | T | E | Z | J | A | C | I |
| P | Z | U | R | A | N | O | C | L | U | R | R | A | A |
| G | A | L | A | K | S | I | A | G | A | V | L | D | S |
| O | F | T | Q | D | U | G | B | J | D | T | Q | M | X |
| X | O | X | S | N | E | P | T | U | N | O | W | Z | C |

|             |            |
|-------------|------------|
| artizarra   | astaroidak |
| eguzkia     | esnebidea  |
| galaksia    | ilargia    |
| izarrak     | jupiter    |
| luma        | marte      |
| merkurio    | meteoritak |
| neptuno     | saturno    |
| teleskopioa | urano      |

